

Tenisa

FUTBOL TXAPELKETETAKO
PARTIDUAK
ETA SAILKAPENAK

LEHEN MAILA

42 JARDUNALDIA

Celta	Real Madrid (C)
Deportivo	Extremadura
Hercules	Athletic
Betis	Valladolid (atzo)
Rayo	Barcelona
Oviedo	Sporting
Espanyol	Valencia (atzo)
Racing	Sevilla
Reala	Logroñes
Zaragoza	Compostela
At. Madrid	Tenerife

SAILKAPENA

1.	Real Madrid	92 +53
2.	Barcelona	87 +53
3.	Betis	74 +33
4.	Deportivo	74 +27
5.	At. Madrid	71 +15
6.	Athletic	64 +16
7.	Valladolid	64 +13
8.	Reala	60 +2
9.	Valencia	56 +5
10.	Tenerife	53 +9
11.	Racing	50 +1
12.	Zaragoza	50 -6
13.	Compostela	50 -15
14.	Sporting	49 -18
15.	Espanyol	48 -7
16.	Oviedo	47 -16
17.	Celta	46 -7
18.	Rayo	45 -18
19.	Extremadura	44 -28
20.	Sevilla	40 -22
21.	Hercules	38 -38
22.	Logroñes	33 -51

Tenisa

Wimbletonen aro berria

Lehen pista berria estreinatuko dute eta Navratilova ez da bertan izango

Wimbletonen azken mende laurdeneko historia ezin da ulertu Martina Navratilova gabe. Guztira 19 titulu irabazi ditu 24 aldiz jokatu, baina aurten ez da han izango. Aro berri bat zabaltzen da, eta baliteke beste Martina batek —Hingisek— hartzea estatubatuarren lekukoa. Gizonezkoetan Pete Sampras da faboritua, baina aurre egin beharko die Ivanisevic, Becker, Krajicek edo Kafelnikov joko beldurgarriari.

Gorka Zabaleta / Donostia

WIMBLEDON esatea Martina Navratilova esatea da. Bera izan da, eta izango da luzaroan, Ingalaterrako Irekietako erregina, parte hartu duen 24 aldietan 19 titulu eskuratu baititu, haietatik 9 bakarkako txapelketan (zazpi bikoteka eta hiru mistoetan). Martinak 1978an lortu zuen lehen garaipena. Haren lekukoa har dezakeena, Martina Hingis, jai gabea zen artean. Bakarkako azken titulua 1990ean eskuratu zuen, Garrisonen aurka. Azken titulua, baina, duela bi urte irabazi zuen mistoetan Starcekin batera.

Aurten historia izatera pasatuko den beste elementu garrantzitsua lehen pista izango da. 1924an estreinatu zen, eta pista zentralari loturik egon da beti. Orain pista berri bat estreinatuko dute, 10.000 ikusle har ditza-keena, eta zaharra zegoen tokian zerbitzu zentro bat egingo dute.

Aurtengo emakumezkoen txapelketan, Martinaren marka berdinu dezakeen emakumea ez da izango Wimbletonen. Steffi Graf alemaniarrek zazpi aldiz irabazi

du jadanik *grand slam* hau, baina aurten ezin izango da Martinaren markara hurbildu. Gauzak horrela, begi guztiak Martina Hingisi so egongo dira.

Baina ez du lan erraza izango suitzar gazteak. Aurrean izango ditu Monica Seles, Jana Novotna eta Iva Majoli bera. Azken hori nahikoa haserre agertu da, antolatzaileek ez baitote pista zentralen jokatzeko utziko. Izan ere, Majolik ez du sekula partidu bat irabazi Wimbletonen, eta belar gainean lortu dituen garaipenak esku bateko hatzekin zenba daitezke: lau. Hala ere, Roland Garroseko irabazleak konfiantza du aurten lan hobea egiteko, eta final-zortzirenetan sartzeko ez du sailtasun handirik izango.

Sampras da faboritua

gizonezkoen artean • Gizonezkoen txapelketan baja ugari izango dira, eta Pete Sampras estatubatuarrek ditu aukera gehien garaipena lortzeko. Agassi, Muster eta Bruguera ez dira bertan izango, besteak beste, eta aurkari gogorrenak iazko irabazlea (Krajicek), Becker, Ivanisevic eta Kafelnikov izan daitezke. Sam-



All England Clubeko langileak, Wimbletongo pista nagusiari azken ukituak ematen, ostiralean.

LYNNE SLADKY / AP

prasek Mikael Tillstrom suediarra izango du aurkari lehen kanporaketan, eta Krajicekek Marcelo Craca alemaniarra. Bestalde, Marcos Aurelio Gorri euskal ordezkariak Boris Beckerrekin neurtu beharko ditu indarrak. Baina bada aurten ingeles artean idolo berri bat: Tim Hen-

mam. Jokalari honek bertako zaletuen gogoak piztu ditu, eta itxaropen handia dute berarengan jarria, Fred Perry handiaren ordezkaria izatea espero baitute. Henmanek final-laurdenak jokatu zituen iaz, eta aurten gorago iristea espero dute Wimbletonen.

Tauziat,
erasorako prest

ALBERTO BERASATEGI bizkaitarrak ez du jokatu Wimbletongo torneo. Bai Nathalie Tauziat lapurtarrak. Tauziatek gogoko ditu belarrezko pistak. Pixkanaka bere jokoa belarrezko pistetan egiten behar den joko erasotzaileraren egokitz joan da. Indarrez jokatzeko duten tenislariak nagusitzen ari dira gaur egun tenisean. Tauziat ohartu da bere jokoa mugatua dela horrela jokatzeko dutenei aurre egiteko. Horregatik, bere jokoa goitik behera aldatu gabe, joko erasotzaileagoa egiten saiatu da.

«Beti amestu dut Martina Navratilovak bezala aritzea tenisean», dio Tauziatek. «Sekula ez naiz izango Martina bezain ona, baina haren estilo berarekin jokatu nire maila igotzeko gai naizela konturatu naiz, eta sailkapeneko 20 edo 25 lehenen artean leku bat izan dezakedala».

Aurten Australiako Irekia ez zuen jokatu eta indarrak udaberriko sasoirako gordezituen. Eta emaitza ona izan da, aurten jokatu dituen partiduetatik % 70 irabazi baitituen. X

Aurten Uda Ekainaren 16an

Ekainaren 16tik goiti:
Udako programazioa

GURE IRRATIA

106.6-FM

% 100
euskaraz

ZYRE IRRATIA